



Etxezarreta Jauregia (Durango)

Durango hiribilduko inguruetakoko bide batean dago, antzinako San Agustin komentuari ondoan, planta lauangeluarreko eraikina da eta lau isurialdeko telaituaz estalitako bolumen sendo bihurtzen da.

Etxezarretak fatxada nagusian biltzen ditu elementu interesgarri guztiak. Baoetako bost ardatzdun sare simetrikoko antolatuta dago. Ardatzak inposta molduratuak elkarrengandik bereiztutako lau mailetan banatuta daude, eta moldura horiek erdian soilak dira solairu bakoitzeko elementu garrantzitsuenak nabarmenarazteko. Beheko solairuan sarbide nagusia zabaltzen da, bao arkitrabatua lerronahasiko orejetadun eta hankadun moldurez inguratua. Gainean eguzkierlojua dago eta erlojuaren esfera farfailedun eta borloidun ohialaz bukatuta dago. Hirugarren altueran burdin forjatuzko balkoia nabarmentzen da, zeina zurkaizten baita akanto hosto mamitsuak zintzilik situen mentsulatzarraren gainean. Bertara irteteko bi bao-ate daude zeinak orejetadun eta hankadun moldura baketonadauez mugatuta baitago. Ingurumen hori erabiltzen da fatxadan urratzen diren zulo guztietan, ganbaran izan ezik.

Fatxadaren aurrealdea pilastra artekatuz enmarkatuta dago alboetan, zeintzuk teilatuaren estalkia zulatu arte gainjartzen baitira eta pinakuluetan bukatzen dira. Goian, erlantz molduratu bat, zeinaren gainean animalien eta landareen motiboez landutako txakurdun teilategia irtetzen da.



Eraikina jadanik ez da bizilekua, Durango hiribilduko Arte eta Historia Museoaren gaur egungo egoitza baita. Hiriko jauregi barrokoa da eta estilo horren oinarriko osagai guztiak eskaintzen ditu: fatxadaren banaketa orekaduna erdiko ardatzari garrantzia emanez, eraikuntzarako materialak hierarkiaz erabiltzea, baoak erregularizatuak, dintelduak eta plakadunak, galeria bat Hegoaldera begira, atzeko lorategia, eta fatxada nagusiaren nagusitasuna. Etxezarreta jauregi barrokoen eredu argia da baina apainduta dago, ez gehiegi, XVIII. mendearen erdialdean Jaurerrian eraikitzen ziren jauregien antzera.

Zorritzarrez, eraikinaz ez dago dokumentaziorik bere eraikuntza-historia ezagutu ahal izateko. Etxezarreta familiarena izan zen, hiribilduko ospetsuenetarikoa bat XVIII. mendearen erdialdean, Jauregia eraiki zen garaian.

Ugariak eta desberdinak dira eraikinak museo gisa gordetzen dituen arte-fondoak; bertan badaude antzinako interes historiko dutenak baina baita arte-lan modernoa eta berriak ere.

Badaude kendu barik dauden erakusketak eta aldikakoak direnak.

Testua: Ana Isabel Leis Alava.



Etxezarreta Jauregia (Arte eta Historia museoa)

Durango. (San Agustinalden, 16. Durangoko alde zaharraren inguruetan, ibaiaren beste aldera).

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Durango)

- Udaletxea.
- Tabirako San Pedro eliza.
- Santa Ana Arkua.
- Santa Ana eliza.
- San Agustin komentua.

